

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Ogasun zuzendariaren abenduaren 15eko 2335/2016 Ebazpena, onartu egiten dituen ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarrien baldintza teknikoak eta diseinua; hain zuzen ere, balio erantsiaren gaineko zergaren aitorten-likidazioei dagozkien paperezko ereduak (390 eta 391) ordezkatzeko balio duten euskarrien baldintza teknikoak eta diseinua

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 20ko 50/2001 Foru Dekretuaren bidez, arautu egin zen balio erantsiaren gaineko zergaren aitorten-likidazioak (303, 310, 390 eta 391 ereduak) eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren nahiz sozietateen gaineko zergaren aitorten-likidazioak (110, 111 eta 115 ereduak) euskarri magnetikoz aurkezteko prozedura.

Ogasun zuzendariaren abenduaren 2ko 2365/2014 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarrien baldintza teknikoak eta diseinua; hain zuzen ere, aitorten-likidazioei dagozkien paperezko ereduak (390 eta 391) ordezkatzeko balio duten euskarrien baldintza teknikoak eta diseinua.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren otsailaren 3ko 39/2010 Foru Aginduaren bidez, zergapeko batzuek eredu jakin batzuk Interneten bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri ziren.

Ebazpen honen xedea hauxe da: 390 eta 391 ereduen 2016ko ekitaldiko aitorten-likidazioei dagozkien paperezko ereduak ordezkatzeko balio duten ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko moduko euskarrien baldintza teknikoak eta diseinua, honekin baterako eranskinean ageri denaren arabera, arautu eta onartzea.

50/2001 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarrien baldintza teknikoak eta diseinuari, honekin batera doan eranskinean ageri den bezala; hain zuzen ere, balio erantsiaren gaineko zergaren 2016ko aitorten-likidazioei dagozkien paperezko ereduak (390 eta 391) ordezkatzeko balio duten euskarrien baldintza teknikoak eta diseinuari.

Bigarrena. Indarrak gabe gelditzen dira Ogasun zuzendariaren urtarrilaren 11ko 19/2016 Ebazpenaren zehaztapenak, balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion aitorten-likidazioei buruzkoak (390 eta 391 ereduak), eta ebazpenaren eranskina.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 15a

Ogasun zuzendaria
TERESA VIGURI MARTINEZ

**ERANSKINA
BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA**

390 eta 391 EREDUAK

2016KO EKITALDIA

1) 390 eta 391 EREDUEI DAGOZKIEN AITORPENEKIN LORTUTAKO FITXATEGIEN EZAUGARRIAK

2016ko Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren aitortpenak (390 eta 391 ereduak) aurkezteko ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

A) EDUKIA:

Artxibo bakoitzak 2016ko aitortpenei buruzko informazioa baino ez du edukiko, eta aurkezteko eman den azken datara egokitu beharko dira aitortpenok. Fitxategi desberdinak aurkeztu beharko dira ereduaren arabera.

B) AURKEZTEKO PROZEDURA:

Telematikoki, Interneten bidez:

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 39/2010 Foru Aginduaren bidez, zergapeko batzuek eredu jakin batzuk Interneten bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri ziren (ALHAO, 18. zk., 2010eko otsailaren 15a).

Fitxategiaren transmisio elektronikoa egiteko, hura testu artxibo bakarra daukan ZIP fitxategi konprimitu bat izango da, honako baldintza hauekin:

Fitxategiaren izena, konprimitu baino lehen: MMMAAXX.TXT

MMM à Aitortpen ereduak: 390 edo 391

AA à Ekitaldia: 16 (2016. urtearen azken bi posizioak)

XX à AN.: Anual (urtekoa)

Adibidea: 39016AN.txt. Fitxategi hori 390 ereduarena da.

Fitxategi konprimituak testu fitxategiaren izen berbera izango du, baina . ZIP luzapenarekin. (39016AN.zip)

Fitxategia lortu ondoren "AldundiDigitala" era konektatu eta honako hau aukeratu behar da:

a) "Profesionalen" bitartez aurkezteko:

Zerga ereduak bidali eta, ondoren, bidali fitxategiak.

BEZaren hileroko itzulketen erregistroan erroldaturik dauden subjektu pasiboen 390 ereduak bidaltzeko lortutako fitxategiak aitortzaile bakarria izan behar du, fitxategi horren bidalketari esleitzen zaion aurkezpen elektronikoko zenbakia aitortzaile bakoitzarentzat bakarria izan dadin, 12. hilari dagokion 340 ereduko 1 motako erregistroko 400–415 posizioetan ipintzeari begira.

b) Zergadunak berak aurkezteko:

Aitortpenak eta ondoren bidali fitxategiak

c) Borondatezko ordezkariak aurkezteko:

Aurkezpena zergadun gisa edo borondatezko ordezkari gisa egiten duzun hautatu behar duzu. Borondatezko ordezkari gisa egitekotan, ordezkatuaren IFZ adierazi behar duzu eta ondoren bidali fitxategiak hautatu.

a) eta b) ataletarako eta bidalketa pantailaren barruan:

1. Aukeratutako ereduak bat etorri behar du fitxategiaren ereduarekin.

2. Aukeratutako ekitaldiak bat etorri behar du fitxategiaren ekitaldiarekin.
3. Aukeratutako epealdiak bat etorri behar du fitxategiaren epealdiarekin.
4. Erregistro kopurua. Fitxategiak daukan erregistro kopurua jarriko da.
5. Sakatu "arakatu", bidali beharreko fitxategia aukeratzeko.
6. Fitxategia aukeratu ondoren, sakatu "bidali" transmititzeko.

C) AURKEZTEKO EPEAK:

Aurkeztu beharreko epean aurkeztuko dira artxiboak.

2017ko urtarrilaren 1etik 30era:

201601-201612 (2016. urtea) aldiko 390 eta 391 ereduak

2) DISEINU LOGIKOAK.

PROFESIONALAREN ERREGISTROA:

Fitxategi bakoitzean lehen erregistro bat izango da, fitxategiko goiburuko lehen erregistroa edo "C mota". Erregistro horrek profesionalaren datuak eta aitorten kopurua izango ditu, gerago azalduko den diseinuaren arabera.

AITORPENEN ERREGISTROA:

Ondoren, xehetasunezko edo "D motako" erregistroak grabatuko dira (aitorpen bakoitzeko, bat), eta aitortenaren kontrol datuak eta gakoak eta zenbatekoak izango dituzte.

OHAR OROKORRAK:

Bi erregistro mota horiek ondorengo irizpideei jarraituz grabatuko dira:

Eremu alfabetiko guztiak ezkerretara lerrokatuta agertuko dira, eta eskuinera, zeroz beteta, inolako karaktere numerikorik edo berezirik gabe.

Eremu alfanumeriko guztiak ezkerretara lerrokatuta agertuko dira, eta eskuinetara zuriunez beteta.

Karaktere alfabetikoak letra larriz formateatuko dira.

Eremu numeriko guztiak eskuinetara lerrokatuta agertuko dira, eta ezkerretara zeroz beteta, eta paketatu gabe.

Eremu guztiak izango dute edukia, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean.

Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfanumerikoak, zuriunez.

Identifikazio fiskaleko zenbakiaren formatua: (bederatzi posizio).

A) PERTSONA FISIKOAK:

Identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuan ezarritako arauen arabera (2008ko abuztuaren 4ko ALHAO, 88) jarriko da identifikazio fiskaleko zenbakia.

Identifikazio fiskaleko zenbaki hori eskuinetara lerrokatuta egongo da. Azken posizioa kontrol karaktereari dagokio. Ezkerreko posizioak zeroak izango dira.

B) PERTSONA JURIDIKOAK:

Identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuan ezarritako arauen arabera (2008ko abuztuaren 4ko ALHAO, 88) jarriko da identifikazio fiskaleko zenbakia.

Ezkerreko lehen zenbakiak dagokion letraren balioa hartuko du.

Hurrengo zazpi posizioak numerikoak izango dira nahitaez.

Azken posizioak (alfanumerikoa) dagokion kontrol-digituaren balioa izango du.

3) ERREGISTROEN DESKRIPZIOA.

3-1) PROFESIONALAREN ERREGISTROA

| HAS. POS. | AMAI. POS. | DATU MOTA | DATU KARAKTEREAK | DESKRIPZIOA -C- ERREG. MOTA GOIBURUA |
|--------------------------------------|------------|-----------|------------------|--|
| 1 | 1 | AN | X | Erregistro mota = C |
| PROFESIONALAREN DATUAK | | | | |
| 2 | 10 | AN | X(9) | Profesionalaren identifikazio fiskaleko zenbakia. |
| 11 | 60 | AN | X(50) | Profesionalaren abizenak eta izena edo sozietatearen izena |
| 61 | 100 | AN | X(40) | Librea, zuriunez |
| EUSKARRIAREN EDUKIARI BURUZKO DATUAK | | | | |
| 101 | 106 | N | 9(6) | Aurkeztutako aitorten kopurua |
| 107 | 4000 | AN | X(3894) | Librea, zuriunez |

3-2) AITORPENEN ERREGISTROA (XEHEBASUNA)

| HAS. POS. | AMAI. POS. | DATU MOTA | DATU KARAKTEREAK | DESKRIPZIOA -D- ERREG. MOTA XEHETASUNA |
|-----------|------------|-----------|------------------|---|
| | | | | XEHETASUNEZKO ERREGISTROAREN GAKOA (01 eta 50 bitarteko posizioa) |
| 1 | 1 | AN | X | Erregistro mota = D |
| 2 | 10 | AN | X(9) | Profesionalaren identifikazio fiskaleko zenbakia. |
| | | | | AITORPENAREN GAKOA (11 eta 50 bitarteko posizioa) |
| 11 | 19 | AN | X(9) | Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia |
| 20 | 25 | N | 9(6) | Hasierako epealdia (UUUUHH) |
| 26 | 31 | N | 9(6) | Amaierako epealdia (UUUUHH) |
| 32 | 34 | N | 9(3) | Aitorpenaren eredua |
| 35 | 35 | AN | X | Emaitzaren zeinua (zuriunea edo N) |
| 36 | 49 | N | 9(12) V99 | Aitorpenaren emaitza |
| 50 | 50 | AN | X | Moneta (E) |
| | | | | AITORTZAILEAREN DATUAK |
| 51 | 100 | AN | X(50) | Abizenak eta izena edo sozietatearen izena |
| 101 | 125 | AN | X(25) | Kalea, hitzez Aitortzailearen helbidea |
| 126 | 128 | N | 9(3) | Atari zk. " " |
| 129 | 129 | AN | X | Atari letra " " |
| 130 | 131 | AN | X(2) | Ataria, eskailera " " |
| 132 | 133 | AN | X(2) | Solairua " " |
| 134 | 136 | AN | X(3) | Eskua " " |
| 137 | 161 | AN | X(25) | Erakundea, hitzez " " |
| 162 | 186 | AN | X(25) | Udalerria, hitzez " " |

| HAS. POS. | AMAI. POS. | DATU MOTA | DATU KARAKTEREAK | DESKRIPZIOA -D- ERREG. MOTA XEHETASUNA |
|-----------|------------|-----------|------------------|---|
| 187 | 211 | AN | X(25) | Probintzia, hitzez " " |
| 212 | 216 | N | 9(5) | Posta kodea " " |
| 217 | 225 | N | 9(9) | Aitortzailearen telefonoa (PPZZZZZZ) |
| 226 | 250 | AN | X(25) | Anagrama |
| 251 | 267 | AN | X(17) | 1 gakoko jardueraren deskribapena (391) |
| 268 | 284 | AN | X(17) | 11 gakoko jardueraren deskribapena (391) |
| 285 | 300 | AN | X(16) | 21 gakoko jardueraren deskribapena (391) |
| | | | | Aitorpenaren GAKO-ZENBATEKOAK (200 agerraldi) |
| 301 | 303 | N | 9(3) | Gakoaren zenbakia |
| 304 | 304 | AN | X | Zenbatekoaren zeinua (zuriunea edo N) |
| 305 | 318 | N | 9(12) V99 | Zenbatekoa (12 oso eta 2 hamartar) |
| 319 | 3900 | | | Idem posizioak (301 - 318) x 199 |
| 3901 | 3934 | AN | X(34) | Librea, zuriunez |
| 3935 | 3942 | N | 9(8) | Epailearen autoaren data |
| 3943 | 4000 | AN | X(58) | Librea, zuriunez |

GOIBURUKO ERREGISTROARI BURUZKO OHARRAK (MOTA = C)

Erregistro mota horrek profesionalaren edo aholkularitza bulegoaren datuak ditu.

Euskarriaren lehenengo erregistroa izan behar du.

Lehenengo eremua, "erregistro mota", konstante bat izango da = C.

Nahitaezkoak dira eremu guztiak. Aitortutako aitorten kopuruen eremuak bat etorri behar du grabatutako erregistro kopuruarekin ("D" mota).

XEHETASUNEZKO ERREGISTROARI BURUZKO OHARRAK (MOTA = D)

Erregistro mota honek aitorten baten datuak biltzen ditu, eta aurkeztutako aitorten kopurua eta erregistro kopurua bat etorriko dira.

Bi eremu-bloketan dago egituratuta: xehetasunezko gakoarena (01 eta 50 bitarteko posizioak) eta xehetasunezko datuena (51 posiziotik aurrera).

XEHETASUNEZKO ERREGISTROAREN GAKOA (1etik 50era, biak barne)

1. ERREGISTRO MOTA: konstante bat (=D) izango da.

2- PROFESIONALAREN IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA: aurrez definitutako goiburuko erregistrokoa.

3. AITORPEN GAKOA: eremu hauek izango ditu:

- Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia
- Hasierako epea (UUUUHH)
- Amaierako epea (UUUUHH)
- Aitorpenaren eredua
- Aitorpenaren emaitzaren zeinua

- Aitorpenaren emaitza
- Aitorpena zein monetatan aurkeztu den (eurotan = E)

Bost eremu horiek aitorpenaren kontrola identifikatzen dute.

Nahitaezkoak dira guztiak, eta desberdinak izango dira zeroen edukiak (numerikoak) edo zuriuneenak (alfanumerikoak), emaitzen eremua izan ezik; horrek zero balioa eduki dezake, aitorpena nulua bada, eta zeinuen eremua zuriunea, aitorpen positibo edo nuluetan.

Eredua:

Honako balio hauetakoren bat izango du:

390 - Erregimen orokorra, urtekoa

391 - Erregimen erraztua, urtekoa

Epealdia:

Epealdiak honakoa izan behar du:

201601-201612

Zeinua: Aitorpenaren emaitza

Aitorpena itzultzekoa edo konpentsatzekoa bada, eremu honen edukia N izango da.

Aitorpena positiboa edo nulua bada, posizio honetan zuriunea jarri behar da.

Aitorpenaren emaitza:

Eremu honetan, 12 oso eta 2 hamartarrekin formateatuta, honako balio hau jarri behar da:

- Ordaintzeko gakoa badago: Emaitza = Zerga-zorra guztira
- Itzultzeko gakoa badago: Emaitza = Itzultzeko
- Konpentsatzeko gakoa badago, eta itzultzekoa ez: Emaitza = Konpentsatzeko
- Moneta pezeta bada, zati hamartarrean zeroak jarriko dira beti; euroa bada, dagokion balioa.

Moneta: E idatziko da.

XEHETASUNEZKO ERREGISTROAREN DATUAK

Xehetasunezko gakoaren ondoren definitutako eremuei dagozkie, eta aitortzailearen datuak eta gako-zenbatekoak atalak biltzen ditu.

A) AITORTZAILEAREN DATUAK:

Nahitaezkoak dira aitortzailea identifikatzeko datuak eta haren helbidea; aitorpenaren goiburuan agertzen diren datuekin bat etorri behar dira.

Atal honetan 1, 11 eta 21 gakoaren edukia eta 391 ereduarena ere sartzen dira.

B) AITORPENAREN GAKO-ZENBATEKOAK:

Erregistroko datu horiek aitorpenaren datuei buruzko informazioa biltzen dute, eta gakoaren kodeaz identifikatuko dira, ereduaren arabera.

- 390 eredia.

Gako baliodunak: 2016. ekitaldiko 390 ereduaren inprimakian dauden guztiak.

- 391 eredia.

Gako baliodunak: 2016. ekitaldiko 391 ereduaren inprimakian dauden guztiak.

Ez dira grabatuko 1, 11 eta 21 gakoak 391 ereduarentzat.

Erregistro bakoitzean, gehienez ere, gako-zenbatekoaren datuentzat 200 agerraldi aurrei-kusten dira.

Zeroak ez diren edukia dutenak baino ez dira grabatuko, ondorengoak izan ezik, hauek beti grabatu behar direlako:

- Aitorpen nuluetan ordaintzeko izeneko gakoa
- 303 gakoa (bezeroaren kontu kodearen kontrol digitua), aitorpena positiboa edo itzultzekoa denean.

Gakoaren zenbakia bat etorriko da aitorpenean erreferentzia modura erabili den batekin, eta ereduaren arabera:

Zeinuaren eremua honela formateatuko da:

- Zuriunea, gakoaren zenbatekoa positiboa bada
- N, gakoaren zenbatekoa negatiboa bada (<0)

Gako bakoitzaren zenbatekoaren eremua bi hamartarrekin formateatuko da.

Eragiketen kopuruaren ehunekoari dagozkion gakoak (120, 121, 122, 123 eta 124), gakoaren zati osoan grabatuko dira, 3 oso eta 5 hamartarrekin.

Horietakoren batek beti izango du edukia.

Ehuneko 100 arabarrak badira, 120 gakoan 10000000 jarriko da gakoaren zati osoan, gako bakoitzari esleitu zaizkion 2 hamartarrak gorabehera.

390 eredua: (Motak)

2, 805, 808, 26, 35, 829, 832, 11, 814, 817, 44, 847, 850, 77, 880, 883, 55, 858, 861, 88, 891, 894, 66, 869, 872, 99, 362, 365, 151, 254, 257, 260.

391 eredua:

(Moduluak eta unitateak)

101 - 107, 131 - 137, 161 - 167

(Indize zuzentzaileak)

117, 147, 177

(Gutxieneko kuota-motak)

119, 149, 179

Hainbanakoaren gakoa:

Hainbanako orokorra: 150

Hainbanako berezia: 152

Dagokion hainbanakoaren erregimena jarri behar bada, honela grabatuko da:

150 gakoari badagokio: 1

152 gakoari badagokio: 1

Ordaintzeko / itzultzeko / konpentsatzeko gakoak:

Ordaintzeko gakoa bateraezina da itzultzeko eta konpentsatzeko gakoekin:

Itzultzeko eta konpentsatzeko gakoak bateragarriak dira beren artean (esportatzaileak).

Aitorpena nulua bada, itzultzeko izeneko gakoan zeroak jarriko dira, eta emaitza izeneko eremuan zeroak grabatuko dira.

Jarduerarik gabe epealdian gakoa:

390 ereduan, 145 gakoari dagokio.

Nahitaezkoa da, eta honako balioen bat eramango du:

1= JARDUERARIK GABE

0= JARDUERAREKIN

Ordainketa helbideratzeko bezeroaren kontu kodearen gakoak:

Nahitaezkoa da aitorpen positiboetarako eta itzultzekoak direnetarako.

Positiboak edo itzultzekoak ez diren aitorpenetan ez egotea gerta liteke, baina, grabatzen bada, osorik egon behar du, lau gakoekin, eta Bankuen Kontseilu Gorenaren arauak bete beharko ditu.

Bezeroaren kontu kodea lau gakotan banatuta grabatuko da:

301 gakoa: erakundearen kodearentzat (4 posizio numeriko)

302 gakoa: sukurtsalaren kodearentzat (4 posizio numeriko)

303 gakoa: kontrol digituentzat (2 posizio numeriko) gako honen edukia zeroak izan daitezke.

304 gakoa: kontu zenbakiarentzat (10 posizio numeriko)